

Egilea: Nerea Garcia Urbizu

Izengoitia: Stiles Stilinski

Lehiaketa mota: Ipuina

Kategoria: D

Karaktere kopurua: 6446

AMETS BITXIAK

Hau Maddison izeneko neska bati duela urte asko gertatutako istorio bat da. 5 urte zituela, bere aitona-amonekin eta bere ahizparekin ospitalera joan ziren bere ama bisitatzera, auto istripu bat izan ondoren koman baitzegoen, bere biziagatik borrokan. Ospitalera iristerakoan eta amaren logelara iristean ikusi zuten Maddisonen aita negarrez zegoela ohearen ondoko aulki batean eserita.

— Zer gertatu da?— galdetu zuen Maddisonek ahots baxu eta kezkatu batean, aitaren erantzunaren beldur.

—Zuen... zuen ama... hil egin da— esan zuen negarrari ezin eutsiz eta ahots totelka.

Denak ezin ezer esan geratu ziren eta tristurari ezin eutsiz negarrez hasi ziren bi ahizpak haien aitona-amonen besoetan.

Bueno, orain bai, benetako istorioarekin hasiko naiz behingoz. Notizia hau jaso eta ordubete inguru geroago gertatu zen:

Autoan zihoazen berriz ere Antonio (aitona), Maria (amona) eta Maddison, aitona-amonen etxera. Baserria herri bateko kanpoaldean zegoen, iristeko aldapa bat igo beharra zegoen eta bidearen alboetan baserri gehiago ikusten ziren. Antonio eta Mariaren baserria azkenetariko bat zen. Istorio honen zatirik garrantzitsuena baserriz inguratutako bidean gertatzen da.

Autoan ez zen ezer ere entzuten, bakoitza bere pentsamendu tristeetan murgilduta. Maddison leihotik begira joan zen bide guztian, malkoek masailetatik irrist egiten zioten bitartean, bere amarekin bizitako momentu zoragarriak gogoraraziz eta jakin nahian autoan zihoazen besteek zer pentsatzen zuten, nahiz eta nahiko argi egon.

Bat-batean bide izkinako etxe batean ezarri zuen begirada. Etxeko garajeko atea irekita zegoela ikusi zuen, barrukoa ikusten saiatu zenean ustekabeko izugarria eraman zuen, bi begiren antzekoak ziren argi gorri-gorriak hari begira ikustean. Maddisonek segituan kendu zituen begiak garajean zegoen gauza bitxi horren gainetik eta beste gauza batzuetan pentsatzen saiatu zen. Baina ezinezkoa egin zitzaion, zeren, momentu batetik bestera zarata izugarri bat entzun zen etxe hartako garajetik zetorrena. Ez zirudien kotxeko beste inork entzun zuenik, bakoitzak bere pentsamenduetan murgilduta jarraitzen baitzuen. Atzera begirada bat bota eta bi begi gorri horiek mugitzen hasi zirela ikusi zuen eta garajetik metalezko egitura bat ateratzen ari zela, gero eta handiagoa egiten. 5 urteko neska txiki hura izugarri urduri jarri zen gauza hori haien atzetik zihoala ikustean. Aurreko bi eserlekuen artean burua sartu eta bere aitonari esan zion azkarrago joateko, etxera lehenbailehen iristeko, baina dirudienez inork ezin zuen entzun ezta ikusi ere egin, inork ez baitzion kasurik ez hitzik esan.

Etxearen atzealdera iritsi zirenean autoa gelditu eta denak atera ziren, baina Maddison ordurako kirioak jota negarrez hasi zen, metalezko egitura hura, gizon itsurakoa, geroz eta hurbilago hiru pertsoneri jaramonik ere egin gabe.

Antonio, Maria eta Amerika kotxetik irteterakoan bertan geratu ziren hitz egiten egun hartan gertatutakoari buruz eta elkar kontsolatuz. Baina, Maddison, erabat txundituta zirudien ez

zutelako erreakzionatzen gertakari horren aurrean. Momentu batean pentsatzera iritsi zen hura guztia bere imajinazioaren gauza zela, bere aitak emandako notiziak eragindako tristuraren eragin bat. Ordea, oso errealista ematen zuen. Umeak negar batean zegoela bere aitona-amonen atentzioa deitzen saiatu zen behingoz etxe barrura sartzeko. Hala ere, betiko erantzuna jaso zuen haien partetik: ezer ere ez.

Orduan, metalezko gauza hura korrika hasi zen, eta Maddisonek bazekienez beregana zihoala, beste hirurak zeuden lekuan utziz korrikan hasi zen bere hanka motzekin. Etxea pasa zuen metalezko egitura horrek. Maddison noizean behin erori egiten zen belaunak urratuz eta azkenerako odolez dariola zeuden. Hala ere erortzen zen bakoitzean segituan jartzen zen berriz ere zutik korrika hasteko. Baina, zoritxarrez, erori zen batean ezin izan zuen berriz ere altxatu nekearengatik eta lurrean botata geratu zen, egitura misteriotsu horrek harrapatu zuen arte.

Maddison besoetan hartu eta berriz ere garaje horretara eraman zuen. Garajea barrutik ikusi zuenean, naiz eta beldurrak jota egon, txundituta geratu zen: kanpotik zirudiena baino hamar aldiz handiagoa zen eta garaje arrunt baten ordean lantegi bat zirudien, pertsona batek bertan bere asmakizunakegiten dituen horietakoa. Maddisonek bere burua galderaz beteta zuen naiz eta harrapatuta egon. Nork egin zuen hori guztia? Zer ziren robot antzeko gauza erraldoi horiek? Zergatik joan zen horietako bat bere atzetik harrapatu arte?

Bat-batean garajearen barrutik gizon bat agertu zen, bere aitonaren adin berekoa zirudien, 60 urte gutxi-gorabehera, damu aurpegiarekin, tristura azaltzen zuena. Neskarengana hurbildu zen eta robotari askatzeko agindu zion, horrek ustekabean esandakoa egin zuen umea lurrean utziz.

—Ondo al zaude?—galdetu zion gizonak Maddisoni honengana hurbiltzen zen bitartean.

Umeak, beldurrarengatik ezer esan ahal izan gabe, baietz egin zuen buruarekin.

—Sentitzen dut gertatu zaizun guztia. Ez nuen horrelakorik gertatzea nahi.—Esan zuen atsekabetuta.

—Zer gertatu da?—galdetu zuen Maddisonek ahots baxu eta izutu batean.

—Hauek nire asmakizunak dira, bizi guztia pasa dut hauek sortzen. Benetan, asko sentitzen dut.—Esan zuen bere benetako damua erakutsiz.—Etorri nirekin nire asmakizun guztiak erakutsiko dizkizut. Ez izan beldurrik.—Adierazi zion neskaren deskonfidantza aurpegia ikusterakoan. Baina Maddison lurretik altxa zenean, pasatako beldurrarengatik edo agian soilik tentsioa oso baxu zuelako, baina altxa zenean bere bista belztu egin zen eta bat-batean lurrera erori zen, konortea galduz.

Esnatu zenean ez zuen ezer ulertzen, bere aitona-amonen etxeko bere logelan baitzegoen. Guztiz esnatu zenean eta non zegoen konturatu zenean, pentsatu zuen ospitaletik etxerako bidean lo hartuko zuela eta gertatutako guztia amets bat besterik ez zela izan.

Hala ere, oraindik bazegoen istorio honetatik ulertzen ez zuen gauza bat. Izan ere, gertakari guzti horiek pasa ondoren, hurrengo egunean, etxe kanpotik paseatzen ari zelaetxe horretako gizon horrekin topatu zen eta naiz eta ez zuten hitzik ere zeharkatu gizonak begirada triste eta atsekabetu bat itzuli zion, aldi berean irrifarre adeitsu bat zuena. Horrek oso nahasita utzi zuen. Gertatutako guztia amets bat izan bazen, zergatik begiratu zion gizon hark emozioz betea, ez bazuten inoiz ere elkar ikusi?

Eta ba al dakizute nola dakidan hau guztia? Ez, ezta? Ba ni naizelako historioko 5 urteko neska hori.